

Chillida / Balenciaga Forma tolesten

Prentsa txostena

B

Zer dira tolesak? Agian, ehun batek bere ezaugarriak adierazteko duen modua. Argia eta grabitatea hartzeko duen modua, estaltzen duenari egokitzeko duen modua. Beso bat estaltzen badu, besoaren egituraren mugimenduen ondoriozko tolesak sortzen ditu. Toles horiek ez dira inoiz berdinak, bizitzaren mugimenduak ere ez baitira berdinak. Erantzunen aberastasun hori izan liteke tolesak artista batentzat duten erakargarritasunetako bat.

Eduardo Chillida, *Escritos*

Estudio Homenaje a Balenciaga, 1990
Bilduma pribatua





Chillida / Balenciaga

Forma tolesten

Eduardo Chillidak (Donostia, 1924 – Donostia, 2002) eta Cristóbal Balenciagak (Getaria, 1895 – Valentzia, 1972) lotura biografiko formalak eta filosofikoak partekatzen dituzte, hiru hamarkadak bien bizitzak aldentzen dituzten arren eta diziplina ezberdinetan jardun zuten arren.

Donostia eta Paris artean —haien ibilbideak markatu zituzten bi koordinaturen artean— badaude elkarguneak, besteak beste, Juana Eguren, Pilar Belzunce edota Maeght senar-emazteak eta beren gizarte eta arte giroa. Bi artisten artelanei erreparatuz gero, beste elkargune batzuk igar daitezke: espazioari buruzko azterketak, geometria inguratzaileak, gainezarpenak, formaren mendeko materiaren tolesa; eta zorroztasuna, harmonia eta proportzioa oinarri dituen filosofia komun bat.

Chillidaren jaiotzaren mendeurrena dela eta, Cristóbal Balenciaga Museoak *Chillida / Balenciaga. Forma tolesten* aldi baterako erakusketa antolatu du. Bi sortzaileen berrogei artelan baino gehiago elkartzea proposatzen duen erakusketa baten aurrean gaude. Horietatik 27 Chillidarenak dira, eta gainerako 15ak Balenciagarenak.

Eduardo Chillida-Pilar Belzunce Fundazioak, Chillida Lekuk eta Sucesión Eduardo Chillidak parte hartu dute erakusketaren antolaketan, beste bilduma pribatu batzuez gain. Erakusketak amaiera ematen dio biografia-areto berrian hasten den ibilbideari, bai eta *Balenciaga. Izaera* komisariotza-seriearen hirugarren erakusketari ere.

Erakusketa dela eta, jarduera bateratuen programa bat jarri da abian. Programa hau Cristóbal Balenciaga Museoak eta Chillida Lekuk antolatu dute elkarlanean, eta udaberri honetan hasi eta datorren urtera arte luzatuko da.



Erakusketa

Eduardo Chillidak eta Cristóbal Balenciagak, gipuzkoar jatorria eta adiskidetasun loturak ez ezik, oinarri filosofiko komuna ere badute.

Biak dira galderaren eta esperimentazioaren seme. Edertasunaren eta harmoniaren bilaketarekin bat eginda, materia errespetu handiz lantzen dute, materialen taupadei —eskultorearen eta jostunaren kolaboratzaile leial eta zorrotzei— adi.

Ezabatze bidez sortzen dute, hutsik / beteta jokoak planteatuz eta muga berriak bilatuz beti. Forma tolesteak beren sortze lanetan sorrarazten duten barne espazioan sartzeko aukera ematen die, non proportzioa eta poesia ezinbestekoak baitira.

Partekatzen zituzten kontzeptu horiek izan daitezke Eduardo Chillida 1987an bultzatu zutenak *Homenaje a Balenciaga* obraren lehen estudioa egitera. Haren jaiotzaren 100. urteurrenaren testuinguruan, airea zizelkatzen zuen eskultorearen eta espazioa josten zuen jostunaren leku komunak esploratzera eta antzematera gonbidatzen gaitu erakusketa honek, «Atlantikoko argia» lagun.

Igor Uria Cristóbal Balenciaga Museoko Bildumen zuzendariak komisariatua, eta Chillida Lekuko komisario taldearekin elkarlanean, Cristóbal Balenciagaren artelanen eta beste sortzaile batzuen, beste bilduma batzuen eta beste diziplina batzuen arteko topaketa jasotzen duen areto berrian kokatuta dago erakusketa hau, bisitarien esperientzia eta Balenciagaren obrari buruzko ezagutza aberasten laguntzeko.


Miren Vives Museoko zuzendariaren hitzetan: «Gure erakusketa-ibilbidea kontuan hartuta, *Topaketak* areto berria *Chillida / Balenciaga. Forma tolesten* erakusketarekin inauguratzea bereziki egokia eta aukera paregabea zela iruditu zitzaigun, *Homenaje a Balenciaga* obra Getariara etorri ahal izan zedin. Obra honetatik abiatuta, omenaldi propio bat antolatuz bat egin nahi izan dugu Txillidaren jaiotzaren mendeurrenarekin; eta omenaldi xumea izan arren, beharrezkoa da eta emozioz beteta dago.»

Fernando Bernuésen hasierako ideiatik abiatuta, Anna Alcubierre museografo eta eszenografoa arduratu da erakusketa diseinatzeaz, zeina konstelazioaren ideian kontzeptualizatuta baitago, non dena lortzen den, non guztia baita paisaiaren parte. «Kointzidentzia formaletatik elkarrizketak sortzen dira, eta horiek multzoak sortzen dituzte, zeinak, aldi berean, antzeko beste batzuekin edo desberdinekin erlazionatzen baitira, eta konstelazioak definitzen dituzte. Ezer ez da zurruna, dinamikoa da: obrek mugimendua dute; ez da ortogonala, organikoa da: idulkiak, oholtzak edota beira-arakak biribilak dira; ez da astuna, lebitatu egiten du: murrak zintzilik daude; ez da agerikoa, misteriotsua da: argiak begirada determinatzen du; isila da, baina soinua du», dio Alcubierrek.

Museografiak publikoa kapsulatu nahi du, Chillidaz eta Balenciagaz inguratu nahi du. Bi sortzaileen lanak jolas- eta erronka-begirada esperimentalen pean aurkezten dira grabitatearen inguruan, geometriaren inguruan, kolorearen edo kolorerik ezaren inguruan. Beraz, ibilbidea ez da lineala, esplorazio askea baizik. «Bilatutako atmosferaren helburua da ikusleei sentiaraztea, ez bakarrik ikusaraztea», zehazten du Alcubierrek.

Gravitación, 1991

Noren eskutik Sucesión Eduardo Chillida. Hauser & Wirth



Onurak eta bisita gidatuak

Bisitariak % 10eko deskontua izango dute bi museoetarako, hau da, Cristóbal Balenciaga Museorako eta Chillida Lekurako. Bi museoetako sarrera-txartela aurkeztea nahikoa izango da.

Bi Museoetako lagunek % 50eko deskontua izango dute museo zentroetako sarrera-txartelen ohiko prezioan. Bisita gidatuz gain.

Jarduera osagarrien egitaraua

Erakusketa dela eta, Cristóbal Balenciaga Museoak eta Chillida Lekuk jarduera bateratuak eta osagarriak biltzen dituen programa bat proposatzen dute. Jarduerak udaberritik aurrera garatuko dira eta datorren urtera arte luzatuko dira.

Urriaren 19an, bi sortzaileen arteko loturak aztertzeraz gonbidatuko gaituen jardunaldi bat egitea aurreikusita dago; bertan, Carmiña Dovale ikertzaileak eta Igor Uriak hartuko dute parte. Jardunaldia Cristóbal Balenciaga Museoan egingo da eta sarrera doakoa izango da.

DAB Dantza Arte Bitartekaritza-ren eskutik, eta Donostiako Musika hamabostaldiarekin elkarlanean, *NOEUD* («korapiloa», frantsesez) izeneko dantza-ikuskizuna aurreikusita dago abuztuaren 10ean. Espazioak eta irudi lerromakurrak sortzea dira jarduerak mugimenduen bidez aztertuko dituen kontzeptuak.

Azkenik, familiei eta haurrei zuzenduta, bi jarduera programatuko dira. Lehenak, Donostiako Orfeoiaekin elkarlanean, eta Europako Musika Egunaren barruan, musika eta sormena uztartuko ditu. Eta bigarrenak, udazken aldean, Maushaus kolektiboaren eskutik, azalpenezko edukian sakonduko du elkarriketen bidez.

Proyecto para un monumento (Buscando la luz III), 1990
Noren eskutik Sucesión Eduardo Chillida. Hauser & Wirth





Chillida / Balenciaga

Lotura komunak

Homenaje a Balenciaga

1990ean, Eduardo Chillidak *Homenaje a Balenciaga* eskultura sortu zuen, miresten dituen artistei eta pentsalariei eskainitako sail baten barruan. Obra honetatik abiatuta, zeinak agerian jartzen baitu Balenciagaren obra nola interpretatzen duen, *Chillida eta Balenciaga. Forma tolesten* erakusketa egituraturik dago bi sortzaile hauen obran dauden paralelismoak erakusteko.

Omenaldi honekin lotuta, lanik zaharrena 1987ko grabitazio eta serigrafia lanei dagokie, jostunari dedikatu zion atzera begirako erakusketaren harira burutuak (erakusketa Donostiako Miramar Jauregian izan zen).

Plano bertikalak espazioan sartzen dira eta soslai femenino bat marrazten dute, irristatuz eta hutsik / beteta jokoari horizonte bat irekiz. «Balenciagak siluetak sortzen zituen, zeinetan prestutasunak, dotoreziak eta proportzioen harmoniak indar handiagoa ematen baitzioten bolumenari. Espazio bizigarriak ziren emakumearentzat, ahaldundu egiten zuten eta emakume dotore gisa goratzen zuten inguruko ikusleen aurrean», dio Igor Uria erakusketaren komisarioak. Eduardo Chillidak esperientzia horiek preziatu zituen eta omenaldi batean jaso zituen, non espirituarentzako espazio bat sortu baitzuen.

Homenaje a Balenciaga obra garatzen duen formatu handiko eskultura 1990ean burutu zen. Eskulturak bi metro eta erdiko altuera du eta Cortez altzairuz eginga dago, Patricio Echeverría lantegiko forjaketa-labeetan, Legazpin. Lau tona eta erdi pisatzen du; horrek egonkortasun handia ematen dio, bai eta gorabehera bat edo beste garraiatzeko orduan ere. Material masiboa izan arren, obraren erdiko espazioak konektatu egiten du gure ikuspegiarekin eta gure gorputz neurriarekin.

Bokazio arkitektonikoak, soiltasunak eta obraren harmoniak elkarrekin lotzen dituzte bi sortzaileak, beren obra sorkuntza bakartzat hartzeraino. Ezaugarri komunak zituzten: beren euskal jatorriaz harro zeuden, lanarekiko zorrotzak eta zintzoak ziren, izaeraz isilak eta ondo heziak ziren (horrek haiekiko errespetua areagotzen zuen). Materiala, oihala, burdina edota papera sentitzea eta horien adierazpen ezaugarriekin bat etortzea funtsezkoa da. «Baina gure ikuspuntutik, bien gauzarik harrigarriena bolumenarekiko duten interesa da (gorputzarekiko interesaren gaintetik jarria, jostunaren kasuan; eta eskultorearen kasuan, bolumenarekiko interesa, espazioa agerian uzteko). Etxeak / soinekoak versus eskulturak / lekuak», ohartarazten da Chillida Lekuko erakusketa-gunean.

15 cm-ko lodiera duten altzairuzko xafla hauek erdiko figura bat inguratzen duen gainjantzi bihurtzen ditu Chillidak; espazio huts bat da, gorpuztu egiten dena eta eskultoreak pozik aurkitu zuena eskultura amaitutakoan. «Bi zirkuluak gainjantziaren ukabilak izan daitezke; gainjantzi honek irudi bat inguratzen du eta espazio huts batetik eskuak eta silueta ikusten direla ematen du», azpimarratzen du Igor Uria erakusketaren komisarioak.

1999an Cristóbal Balenciaga Fundazioa eratu zen, eta kide sortzaileetako bat Eduardo Chillida izan zen, bere seme Luisek ordezkatua museoa ireki aurreko urteetan. Orduko hartan, eskultoreak 1987ko lehen marrazkiaren bertsio bat laga zuen, fundazioaren anagrama gisa erabil zedin. Jostunari egindako omenaldiaren bertsio desberdin horiek guztiak Chillidaren obraren errealitate bat jartzen dute agerian: Chillidaren obra grafikoa, itxuraz desberdina izan arren, estu loturik dago bere obra eskultorikoarekin.

Juana Eguren eta Pilar Belzunce

Chillida familiak Cristóbal Balenciagarekin duen harremana amaren aldeko amonarekin, Juana Egurenekin, hasi zen, Gipuzkoako hiriburuko Biarritz eta Niza hotelen jabe zenarekin alegia. Chillidaren ahozko testigantzek jostuna gogoratzen dute Paristik ekarritako opariak amonari eskainiz, 1940ko hamarkadatik aurrera. Balenciagarengandik gertuko erreferentziazko norbait izan zen eskultorearen bizitzan, eta aurrerago Pilar Belzunceri pasatu zion lekukoa, Chillidaren emazte eta bizikideari (Balenciagaren bezero ere bazenari).

Maeghtarrek eta beren zirkulu artistikoa

Bi sortzaileak Aimé eta Marguerite Maeghten zirkuluaren parte ziren. Senar-emazte horiek arte galeria bat zabaldu zuten gerraosteko Paris hiriburuan; haien asmoa zen ezagutzen zituzten artista ospetsuen obra, adibidez, Matisserena eta Bonnardena, saltzea eta talentu berriak ezagutzera ematea. 1947an, André Bretonek eta Marcel Duchampek *Surrealismoaren Nazioarteko Bigarren Erakusketa* antolatu zuten maeghtarren galerian. Erakusketaren arrakastak galeriaren ospea indartu zuen eta berehala erakarri zituen maila handiko beste artista batzuk, hala nola Joan Miró, Georges Braque, Fernand Léger, Marc Chagall edota Alexander Calder.

1950ean, Eduardo Chillidaren aurreneko lanetako bat, *Torso* eta *Metamorfosis*, galerian antolatutako *Les Mains Eblouies* erakusketarako hautatuak izan ziren. 1956an, Chillidaren obraren erakusketa monografiko bat antolatu zuten han, hurrengo hamarkadetan egingo zituen erakusketetako lehena.

Maeghtarren inguruko nukleo hau lagun taldea ere bazen, eta bertan, artistak ez ezik, bildumagileak ere bazeuden. Eduardoren hitzetan: «Aimé Maeghtek erakusketa-aretoa ulertzen zuen kultur eta solasaldi biltoki gisa. Cristóbal Balenciaga ez zen abangoardiako arte bildumagilea, obra batzuk eskuratu bazituen ere, eta zirkulu horrekin bazuen harremana.»

Marguerite Maeght jostunaren bezeroa zen, baina Balenciagak Maeghtarrekin zuen harremana beste lotura batzuegatik areagotu zuen. Gustav Zumsteg Suitzako Abraham enpresako zuzendari exekutiboa, Balenciagaren zetazko ehun hornitzaile nagusia eta abangoardiako arte bildumagile trebea, Cristóbalen laguna eta Maeghten bezeroa zen. Chillidaren lan batzuk biltzen zituen Zumstgen bildumaren parte bat Züricheko Kronenhalle jatetxe ospetsuaren hormetatik eskegita zegoen (jatetxea haren amarena zen eta Zumstg eta arte- eta moda-giroko lagunak bertan biltzen ziren).

Lagun talde hark sozialki batera hartzen zuen parte galeriaren inaugurazioetan, bai eta zenbaitetan Cristóbal Balenciagak berak antolatzen zituen afari pribatuetan ere. Josefa Huarte, bere neba Juanekin batera, Chillidaren lanaren lehen bildumagileetako bat izan zen, eta Balenciagak Parisen zuen etxean egindako afariak gogoratzen zituen. *Torso* (Chillidaren lehen artelanetako bat) eta XII. mendeko Kristo bat (Balenciagak Maeghtarrei egindako oparia) Maeght Fundazioaren fondoen parte dira (Fundazioa 1966an inauguratu zen, Saint-Paul de Vencen).



Pilarrek, parpailaz eginiko koktel soineko bat du soinean, 1964ko abuztuko bildumakoa eta 1957ko *baby doll* siluetaren bilakaera dena. *Homenaje a Balenciaga* eskultura du ondoan



Chillida / Balenciaga

Balio komunak

Unibertsala izateko jatorria

Ez dezagun ahaztu «original» «origen»etik datorrela.

Eduardo Chillida, *Escritos*

Beren obran biek gauzatu zuten beren abiapuntuko mundua, beren jatorria alegia. Balenciagaren sortze lan ikoniko batzuk (abangoardistentzat jotzen direnak) Getarian (bere sorterrian) eta Donostian inspiratu ziren, lehen urrats profesionalak ematen hasi zenean. Hainbat gama kromatikotan beltza erabiltzea, edota itsas urdina eta marroi iluna elkarrekin konbinatzea gauza berrizaitzat hartzen zuten adituek eta bezeroek; hala ere, Balenciagaren jatorriaren koloreak ziren: Kantauri itsaso haserrearenak, baserritarren jantziena edota euriak bustitako lurrarenak. Era berean, Chillidaren lanek badute horrelako zerbait, kutsu berezi bat: «argi beltz bat, gure-gurea dena». Eskultorearen iritziz, sustraiak funtsezkoak ziren artista ororengan. Artista baten jatorriak munduaren ikuspegi berezia mugatzen duela uste zuen (ideia berriak sortzen diren begirada bakar eta pertsonal hori).

Eta bere euskal jatorrietatik abiatuta, mundua bere obrarekin bete zuen. Balenciagak bere sustraien estetika nazioarteko modaren abangoardia bihurtu zuen; eta Chillidak toki batekoa izatea aldarrikatzen zuen, «gure besoak mundu osora irits daitezzen».

Gauzak zalantzan jartzeko, esperimintatzeko ausardia

Lehenago ibili ez diren bideak bilatu behar dira.

Eduardo Chillida, *Escritos*

Ezagutzen zutenarekin edo lehendik egindakoarekin konformatzen ez ziren bi nortasun jartzen dituzte agerian bien ibilbideek. Formaren bi ikerlari ziren, bolumen berriak asmatzen etengabe aritu zirenak. Balenciagak eta bere jatorrizko formek (aldi berean erosoak eta asmorik gabeak zirenak) etorkizuneko jantzi femeninoen oinarriak ezarri zituzten. Chillidaren ustez, aurrera egiteko modu bakarra ezezagunean murgiltzea zen.

Teknikak eta materialak. Berrikuntzarako muga

Materiaren erreakzioa bere barne-gakoengatik onartzen dut eta lan egiten dudan materiara moldatzen dut neure ideia.

Eduardo Chillida, *Escritos*

Gauzak zalantzan jartzeko eta esperimentatzeko premiak materialak sakon aztertzeraz eraman zituen bi sortzaileak, kolaboratzaileen eskutik erantzun berriak bilatuz. Material batzuen posibilitateak agortzen ari zirela ohartuta, beste material batzuk bilatzen zituzten aurrera egin ahal izateko. Zetazko gai batzuk erabiltzearen bideragarritasunak, esaterako, ehungintzako hornitzaileekin lankidetzan aritzera bultzatu zuen Balenciaga, ehun berriak egin ziezazkioten, nahi zituen formak sortzeko. Chillidaren kasua antzekoa izan zen: arkitektoekiko eta forjako eta lantegietako langileekiko lankidetzaz bilatu zuen, burdinaren eta hormigoiaeren portaeran adituak baitziren, material horiekin noraino irits zitekeen aholka ziezaioten.

Ezabapenak obra amaitzen du

Dotorezia ezabatzea da.

Cristóbal Balenciaga

Bi sortzaileek, euren lana amaitzeko, ezabatu beharra zeukaten. Balenciagaren kasuan, lekukotasun ugariak diotenez, askotan erabakitzen zuen elementuren bat ezabatzea, adibidez, begizta bat edo lore bat, bere sortze lanen azken oreka estetikoa desitxuratzeko. Kontzeptualki, gutxiago gehiago da leloaren mireslea zen; lelo hori Chanelek inauguratu zuen 1910eko hamardakako modan, Balenciagak goi mailako jostintzan aritzea amesten zuenean. Baina bere lan jardunaren azken urteetan, printzipio hori azken ondorioetaraino eraman zuen: elementuak ezabatzea baino gehiago, eredia sinplifikatzea eta ondoko printzipioa aplikatzea bilatzen zuen: «hobe joskera bat bi baino». Balenciagaren azken bildumetako diseinuak «formaren mirariak» zirela esan zuen *Vogue*k. Diseinuaren munduko adituek Balenciaga jotzen dute modako minimalistatzat, ahalik eta lerrorik edo diseinurik garbiena bilatzen zuelako.

Lurra G-156, 1989

Noren eskutik Sucesión Eduardo Chillida. Hauser & Wirth



© Zabalaga-Leku. Donostia / San Sebastián. VEGAP, 2024

Hustasuna. Airea espazio gisa

Espazioa bolumen plastikoari dagokionez ulertu behar da [...] Hortik datorkio bere egitura formari. Eta hau espazio horren premietatik eratorria da zuzenean, animaliek beren oskola aukeratzaren modu berean eraikitzen baitu bere bizitokia. Animalia honen modura, ni ere hutsaren arkitektoa naiz.

Eduardo Chillida

«Sakona airea da» —Jorge Guilléne bertsorik bati erreferentzia eginez— Chillidaren hainbat artelanek daukaten izenburua da; horrez gain, Balenciagak bolumenak eraikitzeke erabiltzen zuen estilo ia arkitektonikoaren aplikazio praktikoa ere bada.

Balenciagaren soinekoek emakumeen gorputzak goreski egiten dituzte toles adimendunen bidez; toles horiek ez dute loturarik bertan bizi diren formekin, eta Chillidaren grabitazioetan gertatzen den bezala, airea inguruan ibiltzea ahalbidetzen dute. Inguratzaileek barne espazio intimo bat eta kanpo espazio publiko bat sortzen dituzte, nondik behatuak diren.



CBM 014.69
Koktel-beroki alderantzikagarria,
shantung beltz eta boli-kolorean, 1959

Eduardo Chillida Donostian jaio zen 1924ko urtarrilaren 10ean, eta arte garaikidearen ameslari bat izan zen. Bere haurtzaroko Donostiako badiak aztarna iraunkorra utzi zion, eta bere obran islatuko zuen geroago. Realeko atezaina izan ondoren, 19 urterekin erretiratu behar izan zuen lesio batengatik, baina espazioa eta denbora kontrolatzeko trebetasun horiek bere karrerarako balio izan zioten.

1943an arkitektura ikasketak hasi zituen, baina bertan behera utzi zituen, 1947an Madrilgo Arte Ederren Zirkuluan sartzeko. Dena den, Chillidak beti izan zituen gogoan arkitekturaren oinarrizko printzipioak, eta «hustasunaren arkitektoa» deitu zion bere buruari. 1948an, beka bati esker, Parisera joan zen, eta eskultura figuratiboak erakutsi zituen 1949ko *Le salon de Mai* erakusketan. Urtebete geroago Euskal Herrira itzuli zen, krisi artistiko labur baten ondorioz; hala ere, Parisekin eta Galerie Maeghtekin harremanetan jarraitu zuen. 1951n Pilar Belzuncerekin ezkondu zen eta haien lehen alaba jaio zen.

Chillidaren obrak espazioari, eskalari eta arkitekturari buruzko kezka filosofikoak islatzen ditu, eta tolerantzia eta askatasuna bezalako balio unibertsalak jorratzen ditu. Oso goiz lortu zituen sari arrakastatsuek, besteak beste: Graham Foundation Award, Chicagon; Eskulturaren Nazioarteko Sari Nagusia Veneziako Bienalean, 1958an; Kandinsky saria, 1960an; Japoniako Praemium Imperiale saria, 1991n; eta abar. Chillidaren lanak banakako 500 erakusketa baino gehiagotan egon da erakusgai, bai eta leku enblematiko ugartan, hala nola New Yorkeko Guggenheim museoan, Madrilgo Kristalezko Jauregian eta Bilboko Arte Ederren Museoan.

2000. urteko irailean Chillida Leku inauguratu zen. Chillidaren obra naturarekin harmonian erakusteko plataforma gisa erabilia, Zabalaga baserria nabarmentzen da. Hala ere, Chillidaren ondarea amaitu gabe geratu zen, artista hil egin baitzen handik bi urtera, proiektu bat egiteke utziz: tolerantziaren aldeko monumentua Fuerteventuran.



© Galerie Lelong - Michel Nguyen

1924	Eduardo Chillida Donostian jaio zen	1977	Donostian <i>Haizearen Orrazia XV</i> instalatu zuen
1943	Arkitektura ikasketak hasi zituen	1980	Atzera begirakoa New Yorkeko Guggenheimen
1947	Arte Ederren Zirkuluan marrazten hasi zen	1983	Zabalaga baserria erosi zuen
1948	Parisera joan zen. Igeltsuzko bere lehen eskultura egin zuen, <i>Forma</i>	1985	Lehen <i>Grabitazioak</i> egin zituen paperean
1949	Erakusketa bat egin zuen Parisko Le Salon de Mai aretoan	1990	<i>Elogio del horizonte</i> instalatu zuen Gijonen
1951	Euskal Herrira itzuli zen. Burdinazko bere lehen eskultura, <i>Ilarik</i>	1991	Japonian Sari Inperiala jaso zuen
1954	Bakarkako bere lehen erakusketa Madrilgo Clan galerian	1994	San Fernandoko Arte Ederren Errege Akademiako Ohorezko Kide izendatu zuten, Madrilen
1956	Bakarkako bere lehen erakusketa Parisko Maeght galerian	1998	Atzera begirakoa Madrilgo Reina Sofía Arte Zentroa Museo Nazionalean
1958	Nazioarteko eskultura saria Veneziako Bienalean	2000	Chillida Leku museoa inauguratu zen
1960	Kandinsky saria jaso zuen	2001	Parisko Arte Ederren Akademiako kide izendatu zuten
1961	<i>Abesti gogorra I</i> zurezko eskultura egin zuen	2002	Abuztuaren 19an hil zen, Donostian
1963	Greziara bidaiatu zuen. Argiarekiko interesa piztu zitzaion		
1965	Alabastrozko bere lehen eskultura, <i>Kandinskyri omenaldia</i>		
1966	Atzera begirakoa Houstongo Arte Ederren Museoan		
1968	<i>Alrededor del vacío V</i> eskultura jarri zuen Washingtonen		
1971	<i>Visiting professor</i> Harvardeko Unibertsitatean		
1972	<i>Lugar de encuentros III</i> hormigoizko eskultura sortu zuen eta Madrilgo Paseo de la Castellana pasealekuan instalatu zuen		
1973	Txamota lurra lantzen hasi zen, bere lehendabiziko <i>Lurrak</i>		

Ikaskuntza-prozesu baten ondoren eta jantzigintzaren sektorean hiriko hainbat establezimendutan izandako lehen esperientzien ostean, Cristóbal Balenciagak goi mailako jostuntzan espezializatutako bere etxe propioa sortu zuen. 1920ko eta 1930eko hamarkadetan bere teknika hobetu zuen, eta garaiko nazioarteko modaren buru ziren Madeleine Vionnet eta Coco Chanel bezalako jostun paristarren lana aztertu zuen. Bi hamarkada horietan, erreferentziatzko jostun gisa aritu zen lanean, aristokraziako eta goi mailako burgesiako emakumeak jantzen zituen, eta horien artean Juanatxo Eguren zegoen —Eduardo Chillidaren amona eta Donostiako Biarritz hotel ospetsuaren jabe—.

Balenciagak beste bi egoitza ireki zituen, bata Madrilen 1931n eta beste bat Bartzelonan 1935ean. Espainiako Gerra Zibilak eragindako ziurgabetasun ekonomiko eta sozialaren aurrean, Parisen beste egoitza bat irekitzea erabaki zuen; bertan aurkeztu zuen bere lehen bilduma 1937ko abuztuan, eta nazioarteko prentsaren aldetik oso kritika onak jaso zituen.

Bigarren Mundu Gerrako gerraostea inflexio puntu bat izan zen jostunaren ibilbidean. 1950eko eta 1960ko hamarkadetak sortze lan ausartek prentsaren lehen orrialdeak betetzen zituzten eta modaren berritzaile garrantzitsua bilakatu zen. Christian Diorren eta Coco Chanelen mailako jostun lehiakideek askotan erakutsi zuten Balenciagaren trebetasun teknikoarekiko eta gustu ukaezinarekiko miresmena. Balenciagaren bezeroen artean baziren erreginak eta printzesak eta, oro har, hobekien jantzitakoen zerrendetan beti agertzen ziren emakumeak. Baina Balenciagaren ospeak bere diseinuen legez kanpoko kopien merkatu bat ekarri zuen, batez ere Estatu Batuetan. Horren ondorioz, prentsatik urrundu zen eta, neurri handi batean, pertsonaia hermetikoa izatearen fama hartu zuen.

Jostunak bere jarduera bertan behera uzten zuela iragarri zuen 1968ko maiatz asaldagarrian; 77 urte zituen eta Parisko goi mailako jostuntza krisi egoera orokor batean zegoen. Tailer guztiak itxi zituen eta Donostian finkatu zuen berriro bere egoitza nagusia. Valentzian hil zen 1972ko martxoaren 23an, bihotzekoak jota.



1895	Cristóbal Balenciaga Getarian jaio zen	1947	Otsailean, Balenciagak «tonneau» edo «barril» izeneko ildoak aurkeztu zuen
1906	Lehen soinekoa egin zuen Torres Etxeko Markesarentzat, jostunaren mentorearentzat alegia	1949	Christos Bellosek diseinatutako kaleko lehen boutiquea inauguratu zen
1907	Balenciaga Donostiara joan zen prestakuntza jasotzera	1951	Cristóbal Balenciagak jantzi «erdi egokitua» (otsaila), «marinel» jantzia (otsaila) eta «midi» jantzia (abuztua) sartu zituen
1917	Cristóbal Balenciagak bere lehen etxea («C. Balenciaga» izenekoa) zabaldu zuen Donostiako Bergara kaleko 2. zenbakian	1955	«Tunika» aurkeztu zuen
1918	Lizaso ahizpekin batera «Balenciaga y Cía» sortu zuen, iraupen mugatuko sozietate bat eratuz	1957	Balenciagak «zaku» soinekoa sartu zuen bere bildumetan, eta Gustav Zumsteg (Abraham) ehun sortzailearekin batera, gazar izeneko ehuna garatu zuen
1924	Aurreko sozietatea deuseztatu eta bere enpresa aldatu zuen hiri bereko Etorbide 2ra (lehen solairua), «Cristóbal Balenciaga» izenpean	1958	«Baby-doll» soinekoa aurkeztu zuen. Frantziako Gobernuak Chevalier de la Légion d'honneur titulua eman zion modaren industriari emandako zerbitzuengatik
1927	Bigarren marka gisa «Martina Robes et Manteaux» fundatu zuen, eta urte bereko urrian marka hori «EISA costura»ra aldatu zuen, Donostiako Okendo kaleko 10. zenbakian	1960	Cristóbal Balenciagak Fabiola de Mora y Aragón Torres Etxeko markesaren biloba eta Belgikako erregina izango zenaren emaztegaiaren soinekoa diseinatu zuen
1933	Cristóbal Balenciagak jostetxe bat ireki zuen Madrilen, Caballero de Gracia kaleko 42. zenbakian, «EISA B.E.» izenpean	1962	Cristóbal Balenciagak gero eta forma garbiagoak eta abstraktuagoak sartu zituen, aurreko kontzeptuak mugara eramanez. Ehun zurrin samarrak erabiltzen ditu, esaterako, gazarra, zagarra eta ziberlina
1935	«EISA B.E.»ren bigarren sukurtsala ireki zuen Santa Teresa kaleko 10. zenbakian, Bartzelonan	1968	Balenciagak Air France-ko uniformeak diseinatzeko eta ekoizteko enkargua onartu zuen, bere erretiroa iragarri zuen, eta bere bizitzako lehen elkarrizketa eman zion <i>Paris Match</i> aldizkariari
1936	Gerra Zibila lehertu zenean, Espainia utzi eta Parisen jarri zen bizitzen	1969	Donostiako azken jostetxeak atek itxi zituen behin betiko
1937	«EISA costura» Etorbide 2-ra aldatu zuen, «EISA B.E.» izenpean	1971	Züricheko (Suitza) Bellerive museoak atzera begirako lehen erakusketa eskaini zion Balenciagari
1937	Uztailean, Chambre Syndicale de la Haute Couture-n inskribatu zen, eta Wladzio d'Attainville eta Nicolás Bizcarrondo bazkideekin batera, «BALENCIAGA» sozietate mugatua ireki zuen	1972	Balenciaga Valentzian hil zen martxoaren 24an, 77 urte zituela, eta bere jaioterriko hilerri txikian lurperatu zuten, Getarian
1939	Cristóbal Balenciagak arrakasta handia lortu zuen Parisen, eragin historizista nabarmena zeukan bere lehen bildumarekin		

Cristóbal Balenciaga Museoa

Cristóbal Balenciaga Museoa 2011. urteko ekainaren 7an zabaldu zituen ateak. Jostunaren jaioterrian dago kokatua, Cristóbal Balenciagaren lehenengo prestakuntza-urteen eta heldutasun profesionalaren oroimenez eta modaren munduari egindako ekarpenak ulertzeko helburuarekin.

Balenciagaren bitzita eta lana, modaren eta diseinuaren historian izan zuen garrantzia eta bere ondarearen garaikidetasuna ezagutzera emateko helburuarekin, bilduma aparta du museoak. Oso bilduma zabala da —5.100 pieza baino gehiago inguru ditu, baina etengabe ari da handitzen, gordailuei eta dohaintzei esker—, eta hedadura formal eta kronologiko handia du —jostunaren modelo zaharrenak daude, esaterako—; bi ezaugarri horiei esker, gaur egun dagoen bildumarik osatu, koherente eta interesgarriena da.

Bildumaren beste balio ezohiko bat piezen jatorria da; izan ere, Balenciagaren nazioarteko bezero handiak XX. mendeko gizarteko pertsonaia aipagarriak izan ziren: Mona Von Bismarck, Rachel L. Mellon, Patricia López Wilshaw, Barbara Hutton, Lilian Baels, Grace Kelly edota Madame Bricard, besteak beste, Artxiboetan dauden modeloak jantzi zituzten.



Informazioa

Zuriñe Abasolo Izarra
Komunikazio arduraduna

zurine.abasolo@fbalenciaga.com

T +34 943 004 777

M +34 647 410 775

Aldamar Parkea 6
20808 Getaria
T +34 943 008 840
info@crislobalbalenciagamuseoa.com
www.crislobalbalenciagamuseoa.com

B

CRISTÓBAL BALENCIAGA MUSEOA

